

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Alkateak ebatzitako izendapenak eta eskumen eskuordetzeak

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.3 eta 23.4 artikuluetan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, toki erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen Erregelamendua onesten duenak, 43., 44., 46. eta 52. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, Amurrioko Udaleko alkate-lehendakariak ebatzitako izendapenak eta eskumen eskuordetzeak argitaratzen dira.

2019ko uztailaren 15eko 19/377 Dekretuaren bidez, honako eskumen eskuordetze hau egiten da:

1. Ondoko zinegotziak tokiko gobernu batzarreko kide izendatzea:

Mahaiburua: Josune Irabien Marigorta (EAJ/PNV).

Ordezkoak: lehen alkateordea eta bigarren alkateordea.

Titularra: Txerra Molinuevo Laña (EAJ/PNV).

EAJ/PNVko kideen ordezkoak: Alberto Artetxe Vicente, Eduardo Saratxaga Isasi, Nuria López Lumbreras, Juan Cruz Apodaca Sojo eta Ixone Saratxaga Ibarretxe.

Titularra: Estíbaliz Sasiain Furundarena (EAJ/PNV).

EAJ/PNVko kideen ordezkoak: Alberto Artetxe Vicente, Eduardo Saratxaga Isasi, Nuria López Lumbreras, Juan Cruz Apodaca Sojo eta Ixone Saratxaga Ibarretxe.

Titularra: Mariano Álava Zorrilla (EH BILDU).

Ordezkoa: Iñaki Ibarluzea Ortueta (EH BILDU).

Titularra: David Romero Campos (PSE-EE/PSOE).

Titularra: Kepa González García (ORAIN AMURRIO).

2. Txerra Molinuevo Laña eta Estíbaliz Sasiain Furundarena zinegotziak hurrenez hurren lehen eta bigarren alkateorde izendatzea.

3. Ondoko eskumenak eskuordetzea tokiko gobernu batzarrean, ebazteko ahalmen osoekin:

a). Ordainketak agintzea.

b). Enplegu publikoko eskaintza, langileak hautatzeko oinarriak eta lanpostuak betetzeko lehiaketan oinarriak onartzea eta finkatu gabeko eta aldirikoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.

c). Udalbatzari ez dagozkion planeamendu tresnak onartzea, baita hirigintza kudeaketarako tresnak eta urbanizazio proiektuak ere.

d). Udal ordenantzak urratzeagatiko eta alkatearen agintaritzari muzin egiteagatiko faltak zehatzea.

e). Kontratuak eta emakidak ematea eta kasuan kasuko proiektuak onartzea.

f). Ondasunak eta eskubideak eskuratzea eta ondarea besterentzea.

g). Baimenak ematea.

h). Beste edozein, eskuordetzeko modukoak izan arren, ordenamendu juridikoak eratzikitakoak.

Aurreko paragrafoan generikoki ezarritakoa eskuordetzen da, ondoko salbuespenekin, hauen gainean ez baitira alkatearen eskumenak eskuordetzen:

I. Oro har epea dela eta, urgentzia dagoela berariaz jaso eta egiaztatzen den espedienteetan finkatutako eskumen guztiak. Ulertuko da urgentzia dagoela tokiko gobernu batzarreko ohiko bilkura deituta ez dagoenean, eta urgentziak jarraituko du bilkura hura normaltasunez izan ahal zen ostegunaren hurrengo ostiralera arte.

II. Funtzionario eta lan kontratudun langile guztiak izendatzeko eskumena, zentzu zabalean, ulertzen baita eskuordetutako eskumenetako h) hizkian jasotzen dela, efikazia arrazoiak direla eta beharrezko egiten delako eskumen hori neuk berreskuratzea; izan ere, izendapen horiek ia beti, beti ez esatearren, egin beharrekoak edo araupekoak baitira eta gainera luzamendurik gabe jardutea eskatzen baitute.

III. Langileak hautatzeko eta lanpostuak betetzeko espedienteetan, zentzu zabalean, behin-behinean eta behin betiko onartutakoak finkatu edo izendatzeko ekintzak, luzamendurik gabe jardutea eskatzen badute, gerora errekurtsioa jarri ahal bazaie ere.

IV. Udal efikazia eta arrazionaltasun zentzu oinarrizkoagatik, alkatearen eskumen horietatik ez dira eskuordetuak jo behar oro har espedienteak antolatu edo izapidetzeko ahalmenak, bakar-bakarrik eskuordetu ahal baitira administrazio bidea agortzen duten ebazpen eskumenak eta, formalki behin betikoa ez badira ere, espedienteari jarraitzea eragozten dutenak eta, ondorioz, administrazio eta jurisdikzio errekurtsioak jarri ahal zaizkienak.

V. Kontratuak esleitzekoa, eskaintza ekonomikorik onena hautatu edo adierazi ondoren, adierazpen hura tokiko gobernu batzarrari dagokiolako.

VI. Udalaren biztanle erroldako espedienteak ebazteko eskumena.

VII. Hiri bideetan egindako zirkulazio arau hausteengatiko zehapen eskumena.

VIII. Era berean, funtzionamenduaren eraginkortasuna -bizkortasuna- bermatu beharragatik, ez dira eskuordetuko honako eskumen hauek, zeinak alkatearenak izaten jarraituko baitute:

a) Kreditu gaikuntzak.

b) Kreditu gehigarrietako espedienteak, urtean metatuta aurrekontuaren ehuneko 5eko gehikuntza baino handiagoa ez badakarte.

c) Kreditu transferentziako espedienteak, baldin eta gastu arlo bereko partiden artean egi-ten badira (salbu inbertsio errealetarako aurreikusitako esleipenak gutxitzen dituztenak; osoko bilkurak onartu beharko ditu) edo, funtzio desberdinetakoak izanik, langile kreditukoak badira. Programa talde desberdinen arteko transferentziak ere onartu beharko ditu lehendakariak, baldin eta jatorri eta destinoko programa taldeetako aldaketen alde metatuak ez badu gaintitzen hasieran aurreikusitako esleipenen ehuneko 25, salbu inbertsio errealetako esleipenak gutxitzen badituzte.

d) Kreditu transferentziako espedienteak, kreditu orokorra gutxituz finantzatzen badira.

e) Kredituak gehitzeko espedienteak.

f) Kreditu orokorreko xedapenak.

g) Aurrekontua egin, izapidetu eta likidatzearen arloan alkateari legez dagokion beste edozein eskumen.

IX. Udalaren ordezkariak.

4. Burutzaren berariazko eskuordetzea egitea, ondoko informazio batzordeei eta zinegotziei dagokienez:

1. ANTOLAMENDUKO INFORMAZIO BATZORDEA

Mahaiburua: Alberto Artetxe Vicente.

Ordezkoa: Eduardo Saratxaga Isasi.

2. LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEA

Mahaiburua: Josune Irabien Marigorta.

Ordezkoa: Juan Cruz Apodaca Sojo

3. HERRITARREN INFORMAZIO BATZORDEA

Mahaiburua: Txerra Molinuevo Laña.

Ordezkoa: Nuria López Lumbreras

5. Udal edo, orokorrean, udalaren menpeko instalazio eta erakundeetako ordezkariak eskuordetzea ondoko zinegotziei:

1. Udal instalazioetan:

- Udal pilotalekua: Garazi Dorronsoro Garate.
- Lucas Rey pilotalekua: Mariano Álava Zorrilla.
- Udal hilerria: Irune Iturbe Errasti.
- El Salvador kirol instalazioak: Alberto Artetxe Vicente.
- Sasoiko igerilekuak: David Romero Campos.
- Bañueta kiroldegia: Estibaliz Sasiain Furundarena.
- Basarte futbol zelaia: Kepa González García.
- Jauretxea: Nuria López Lumbreras.
- Kultura etxea: Nuria López Lumbreras.
- Gurutze Gorria: Garazi Dorronsoro Garate.

2. Ikastetxeetan:

- Zabaleko ikastetxe publikoa: Txerra Molinuevo Laña.
- Lucas Rey ikastetxe publikoa: Josune Irabien Marigorta.
- Zaraobe institutua: Maitane Salutregi Gardeazabal.
- Aresketa Ikastola: Eduardo Saratxaga Isasi.
- Virgene Niña ikastetxea: Ixone Saratxaga Ibarretxe.

a) Ondoko zinegotziak izendatzea Amurrioko Udalak "Kantauriko Urkidetza" ur partzuergoko batzar nagusian izango dituen ordezkariak: titularra: alkatea, Josune Irabien Marigorta (EAJ/PNV) eta ordezkaria Alberto Artetxe Vicente (EAJ/PNV), titularra: Txerra Molinuevo Laña (EAJ/PNV) eta ordezkaria: Estibaliz Sasiain Furundarena (EAJ/PNV) eta titularra: Jon Berganza (EH BILDU), eta ordezkaria: Luis Mariano Álava Zorrilla (EH BILDU).

b) Amurrioko Udalak “Kantauriko Urkidetza” ur partzuergoko gobernu batzarrean izango dituen ordezkari izendatzea alkatea, Josune Irabien Marigorta (EAJ/PNV), eta ordezkari Txerra Molinuevo Laña lehen alkateordea (EAJ/PNV).

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzen.

Amurrio, 2019ko uztailaren 22a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA